"Ni baitara bea"

«Noscete ipsum» — **LAŔEKO**

Euzkotaŕak badira, gure itzalen agertzeak samurtzen dituela. Nai duenak nai duena ezin beza; baño, euskaldunek gure itzalak baditugu. Arimako arazoetan eta gogozko eriketa anditan egiten dugunaren arabera; ez litekekaltegaŕi, gure itzalak bilatzea eta ikŕat ematea.

Obenak, uts-egiteak okeŕ bideak, zuzendu nai ditugularik, lenik gu baitara bea oŕi-adi egonik, ikasten ditugu gure gaizki-eginen bideak eta iturburuak.

Lendiziko lana arimaren onez gure obenen eta oitura txaŕen kontu artzea da, gero ek damuturik beste bide zuzenagotik ibiltzeko asmoak artzea. "Mutatis mutandis" unelako zerbeit egin bear dugu euzkotaŕen itzalak argitzeko.

Orai, nai nuke itz bat edo beste eŕan, euskaldunen itzal batzuez. Lenik: ez dakit sortu zarezten, baño euskaldun-letradunen artean itzal bat badugu elkaŕekin itz-egiten ari geralarik. Aŕigaŕizkoa da; euskaraz itz-egiten oi dugu, aguŕ egitean, osasuna aipatzean, egunaldian edo unelako beŕi ematean.

Naŕika edo solas-bide arin batez mintzo bagara euskaraz ari gara. Baña irugaŕen bat eldu bada, solas gai ilunago badugu, edo gaŕantzi andiko gayetan barna sartzen bagara, bereala erdaraz.

Eta baldin alakoetan batek uste badu erdaraz argiago edo jakintsuki elkar adituko dutela, ongi dago. Baña, nik uste, euskaraz oituak ez gaudelakoz egiten dugula. Eta ori ala bada: ¿Noiztik asi gogo dugu euskaraz oitutzen?

Gai guztietarik euskaraz nagusitzeko ori da bide bat, zabalena ezpeda, guztientzat egokiena.

Oraňik, euskaldun letradunek euskara gugandik baztertzeko guti aski dugula. ¡Ŕiŕez egia!

Jakiña; ikastaro labuŕa egin ditugula, euskaraz nagusi agertzeko: ez da gauza erraza bi izkuntza berezietan berdin nagusi izatea. Zeintan edaten ditugun beŕiak eta ikasduriak, artan gaitezke trebenik eta artan leŕatuenik.

Erakaspenik euskaraz artzen ez degulakoz neke zaigu edozein gairi buruz itz egitea. Zilegigoaz dela, sendakintzaz dela, Azieraz (pedagogia) ots jakintza arazoaz. Gogoetazko ariketan jarduntzeko euskaraz ikasiak bear dugula, jakiña; baño, euskaraz itz-egiteko ezbai da bide oberik itz-egitea baño; arabera, gogoetazko gayetan nagusitzeko ez da beste biderik gai oketaz euskaraz itz-egiten oitutzea baño.

Gisa ortan aster ixil-araziko ginituen, uste dutenak euskaraz ez daitekela itz-egin gai aŕonta batzuez besterik.

Aspaldi eŕan zuen "Axular" zenak, egiten ez dugun ori ez dela euzkararen eŕua, berriz eta euskaldunena. Itz batean, euskeldun geyenak ez garela euskararen gai.

Gero euskaraz ikasiago bear dugula, kopeta goratzeko.

Orai, eskoletan auŕak asi direlarik aritmetika-geografia-geometria eta euskaraz batzen, gu, euskaldun letradunek ez dugu gutiago egin bear, jakintza arazoetan euskaraz nagusitzeko.

EUZKADI untako euska lan edeŕ batean, aren egileak "Lauaxeta" jaun gazteari..." eta zu bezelako mutil-zar jatoŕak..." deitu zion. Naŕika ezpada ez daiteke mutil gazte ezkongabe bati, "solteron" deitu. Beldur naiz, lan aren egileak, ondo ez ezagutzen ikien, "zar" atezkiaren indaŕa edo izenari ematen dion adiarazpena.

Beste eztabai bat sortu zaigu: nik ez dakit euskar-izkelgiak bateratzea on denik; uste dut, oraňik ez gaudela oŕen ikasiak, gauza oŕetan eskurik sartzeko.

Baño, uste dut on giñukela, euskar izbide bat bakaŕa dugularik, aren arabera euskaraz idazteko era batean egin gure idazlanak. Orduan, gure eztabayak xuritzeko izango dugu "lengua literaria", euskar idazkera bat; eta ez orai bezela, gure eztabayak egiteko erderara jo beaŕa.

Euzko-erri-jakintza

BERTSO ZARRAK

Paratu biaŕ dogu
kanta bat baŕija
baldin supiziente
ba'neu memorija.
Ezagutzen dodana da
neure zalan andija,
baña ikusi ezkero
onelako premiña,
ezin egon nindeke
esan bage egija.

Nai neuke ixan prale
edo abadia
ongi esplikatzeko
Kristoren legia.
Uste ixanagatik
txit gixon brebia
ezin ixan nindeke
zu baxen obia,
ni bezelako gixon
estudijo bagia.

Kristiñau piel gustijak
gagoz obligatubak,
ongi guaŕdadutzeko
amar mandamentubak.

Lenengo mandamentuba
nai ba'degu guaŕdadu
Jaungoikua bakaŕik
biaŕ dogu amadu.
Len gaizki egiñak baŕiz
biaŕ zaigu damutu
examiña egiten
biaŕ gera nekatu,
arima sekulako
ez dedin kondenatu.

Zeŕ dan konsideratzen
jaŕiko bagiña
damu ixango genduke
juramentu egiña.
Kostunbre txaŕari isten
sayatu aŕegiña
aŕturik bijotzian
propositu piña,
il biaŕak gustijori
emango deusku miña.

Irugaŕen mandamentua
nai ba'degu itz-egin
kuidadu jai egunian
mezarik uts-egin.
Denporia juan da
buruari atz-egin,
pulpituetatik saŕi
digube ots-egin
inpeŕnuban eŕetan
ezdala atsegin.

Munduan gugatik-an
egindako pausuak,
beti presente daukaz
Jesus bildots mantsuak.
Jesus'ek agintzen dauskuz
zerutik abixuak
ondradu daiguzala
geure gurasuak,
atsegin aŕtu eztayen
luzipeŕ galdubak.

Gozatu nai-dabenak
Jaunaren presentzija
destefatu biaŕ dau
goŕoto gustija.
Munduan sobra dago
ezin alkaŕ ikusija,
bixiro deritxat nik
kontu itxusija,
estimetako prenda da
gixonaren bixija.

Seigaŕen mandamentua
noya itz-egitera
gusto zikiñetatik
zer uste du atera.
Liberal asko dabil
luziperen plateraz
konbidatuagatik
ez juan jatera.

Munduan biar dogu,
geure denpora pasa
beti presente dogula
inpeŕnuko prasa.
Egunen baten Jesus'ek
artuko degu kausa
ia irauli genduban
ostutako gauza,
lapuŕa ezta egongo
orduan txit latza.

Gauza txaŕa da eta
muŕmuraziñua
zenbat pertzonak aŕtan
bere apeziñua.
Zerura juateko
¡ai ze opezijua!
goŕotau biaŕ degu
alako bixijua,
logradu nai ba'degu
geure salbaziñua.

Gauza prezizua da
dotriña ikastia
kondenatu ez dedin
arima tristia.
Zaŕak bixi dirala
il leŕeke gastia,
Jesus'ek eleuke nai
gu onela ikustia,
ez deseatzeko diño
besteren emaztia.

Portunatzen ba'gera
egiŕera pekatu,
konpesetan juan da
ezta zer ukatu.
Norbere burua legez
progimua amatu
biximodu baŕi bat
auŕerantza aŕtu
glorija penakatik
ez dezagun trukatu.

Jaunak ezaguturik
gu nolakuak geran
aingeru bat nai eban
laguntzeko eman.
Pelatu nai ba'du
etsayakin geŕan
ointxe auŕkitzen gera
sekulako eran,
gero saŕtu ez'gaŕezan
luzipeŕen.

Uaŕa.—Bertso oneik, Ozerin'daŕ Maŕkeliñe 70 uŕtedun Mañari'ko anderiari entzunak dira. Ta emakume onek diño, berari, gastetxuba zala, Bizkaŕa'taŕ Pantzeska 71 uŕtedun "Ixuŕtza,,'ko gixonak irakatsi eutsozala. Beraz, bertso oneik be oso zaŕak ixan biaŕ dabe.

MAÑARIKO.

Uaŕa.—Neuŕtitz oneik jaupariren batek egiña-edo dira. Oso atsegingaŕi yataz neuri, bestiak zer esango daben eztakit baña. Olerkari-bijotza eukan neuŕtitz oŕeik egin ebazanak. Tamala eŕderakada geyegi ixatia. Goikuaren amaŕ agindubak, eŕi geyenetan auŕkiŕuten dira bertsoetan, jauparijak, ba, umiai erakusteko neuŕtitzetan jaŕtzen ebezan. Gai onetzaz lan berezija egin dagikegu. Eŕi gustijetakuak bildu ta a zelako idaztija argitaldu geinkian! Euzkadi'ko eŕi geyenetan gai batetzaz diran neuŕtitzak batzia gauza edeŕa. ¡Jakintza andirik ezta biaŕ olako lanetarako, ba! "Mañariko" argi oŕi txalorik sutsubenak jo biaŕko dautsoguz. Emakume azkaŕ ta langile onena dogu.—*Lauaxeta.*

Barriola' tar I. M.
Gaixotegi'ko sendagillea urdail - gibel - este.
GARIBAI, 20, 2'g. — DONOSTIA

ERNANDORENA
ORTZLARI (DENTISTA)
BRIM-KALEAN, 31, 2.°, — DONOSTIA.

Azalpenak

Guzurrak...

Lauaxeta

Askoren bidia zein dan, ikasi dogu. Umiak ilargija eskatzen daunian, ezin emon ixaten yako. Baña tira, umiak eztaki zer eskatzen daun. Parkatu dagijokegu.

Umiak eztiranak, baŕiz, ilargi-antzeko ezer eskatzen dabenian, zigoŕkadia meresi -ixaten dabe. Orainguak ilargirik ez ei-dabe eskatuten, gixonak buru-argi diralako.

Ixan be ume-antzo agertzia ezta bidezkua. Ganera ilargijak eztautsoe jaten emoten. Baña ilargija baxen gaitz, lortuteko diran gauzak eskatuten dabez.

¿Olakorik egija danentz? Ezta ixango, ba. Neu ule-soil nazan legetxe. Zin andija egin dot geure, neure ulerako ziña esan dot-eta. ¿Nortzuk diran olako gauzak eskatuten dabezenak?

Argontzija eztozu ixotu biaŕ - ixango. Txaidez-txaide dabiltz. ¿Oŕeik ikusi gurako zeunkez?

Erdu neurekin. Ronda-txaidian dagoz olako batzuk. —Ene, Ronda txidian "txikito" bana aŕtzeko-edo? Ez txikitorik eztot aŕtzen.

Abelgoŕijak lakoxe gixonak dagoz oŕ Ronda txaidian. Saŕtu gadixan etxe onetan. ¿Etxe zaŕa, ezta? Atadija be iluna... Gaizkiñak estalduteko toki berezija. Gaizkiñen tokija da ixan be...

"El Nervion". Etxe onetan izpaŕingi antzeko oŕi loi ori argiŕalduten da. Artezkari jaun bat ei-dago. Jaun dan eztakit. Katoliko zintzua... Emen dagozan gixonak ikusten dozuz, ¿ezta? Ara, ba: oneik umiak legetxe lortu ezin daŕeken gauza bat eskuratu nai dabe.

—Zer da gauza ori? Kapeladun gixonok oŕen zoruak dira?

—Zoro ta erdi. Abeŕtzaliak zapaldutia gura dabe. Euzkadi osuan abeŕtzale garau bat utzi-barik, garbiŕuko ei-dabez.

—Umiak dira oneik edo zoruak?

—Ez, eztira umiak, baña zoruak be ez. Dongiak dira, lotsa-bakuak, gaizkiñak.

—Itz gogoŕak diñozuz...

—Itz gogoŕik eztago pisti txaŕak zapalduteko. Oneik gaizkiñak legetxe erail biaŕ dira.

—Oben andija egin dabe-edo.

—Bai oben andijena. Uskuŕtza maŕe dabela esaten dabe. Katolikuak dirala be azalduten dabe. Beti ona egiŕeko prest ei-dagoz, baña guzuŕez, lodaŕkeriz zapokeriz, ta keri gustijakaz abeŕtzalien auŕka lan-egiŕeko eztaukoe lebarik.

¿Ikusi dozu orain argiŕaldu daben idaztiñua? "Judaismo, Nacionalismo, Comunismo" idatzi dabe azalan. Eta baŕuko izki loyak, lixunen baten semia danak idatzi dauzan leŕuetan, euzko-abeŕtzaletasuna judataŕen txindiz ta laguntzaz zabalduten dan galbidia dala dirausku.

Doipurubaren itzak aŕtzen dauz geure auŕka, ta gero gixonik dongienak idatzi dabezan itzakaz geure alako txaŕikerija konponduten dabe. Ixenik eztauko ori egin dabenak. Egija esateko aŕearik daukon eztakigu. Iruña'ko eŕtxadonetan salduten ixan dabe.

¿Zergaŕik olako idaztiñuak? Ezer beste bide batetik lortu ezin eta oŕa jo dabe gaizkiñok. Abeŕtzaletasunaren auŕka eztaukoe exertxu ta galduta dagozan oneik, guzuŕakaz urkua atzipetu gura dabe.

Baña ilargija eskatuten dozube, lotsa-bakuok. Eŕazago lortuko zeunkie goyan dabilan arto-bero edo ilargi ori, abeŕtzaletasuna zapaldu baño. Uskuŕtza-zaliak dirala azalduko dabe gixon oneik. Iñori ixen-ona kentzia ezta katoliko baten lana.

Agiŕe'taŕ Joseba Andoni'ren auŕkako itzak be ba-dira. Sion'go irakasliak ei-dira aldun onen onu-emotzaliak. "El Nervion,,' en argiŕaldu dabe idaztiño ori... Eta "Prensa Catolica,,'tzat aŕtuko dabe izpaŕingi ori, emakume bijotz-bera daukenak...

Beste biderik eztauke geure auŕka egiŕeko ta guzuŕ-bidietatik dabiltz. Geure bixitzan dedurik onena, katolikutasuna daukogunen auŕka oŕelako zapokerijak diñuezanari buruba kendu ta kiŕu.

Baña zetarako laŕiŕuko gara. Aŕo guaz geure bidian. Auŕera guaz ta txakuŕak atzian geratzen dira ausika. Ezer ezin dabe egin eta guzuŕa, bekatxa ta dolaŕkerija batzen dabez geure auŕka. Ondo dagoz!

Si usted se marea al VIAJAR es porque quiere. Tomando dos capsulitas de ONDOIBIL antes de emprender un viaje, el MAREO no puede producirse. Venta en farmacias.

ERRIJETATIK

GAUTEGIZ DE ARTEAGA

EUZKEL-IXENA.—Emengo eŕtxadonan ugutzau dabe geure adizkide dan Naberan' daŕ Pilipa eta Otzamitz'taŕ Toribe'ren alabatxuba. Miren Maŕe euzkel-ixenak jaŕi dautsez.

Oŕela erakutsi dagijegun eŕiŕaŕai euzko -abeŕtzaletasuna maáe dogula. Ori da bidia, Pilipa, ori.

KARMEL-JAYAK.—Zendokiz'ko jayak ospatu ziran igandian. Amaŕetan jaupa ixila. Auzotegi aretan Karmelen Amearen jayak ospatuten dira.

Euzko-eŕomerija be egin zan jaupa-ostian. Aŕatsaldian be dantzea ugari.

NASKALDIJA.—Bilbao'tik etoŕi da Alboniga'taŕ Poluikarpa. Emen ixan zan Uribe'taŕ Julene be.

ABEŔTZALIAK. — Asko gara eŕijon abeŕtzaliak, baña bananduta gabiltz ardi -galdubak lez. Ganera euzkel-ixenak umiai iminden eztira ausaŕtzen. Ori ezta abeŕijaganako maŕasuna.

BASORDE.

Uaŕa.—"Konke" labuŕtu egin dautzudaz, ezta? Nagon ixilik. Orain-arte be eŕi oŕetakuakaz naiko gora-berarik erabili dot-eta.

Uribe'ren Jostolea
Alkondara eta enparauko gixon-janzkiyak.
Loyola-kalea'n 3'garren zen bakiyar;
DONOSTIA'N.

¿Txakurrak...?

Ergamor jauna uŕten zan etxetik bere txakuŕ "Otxantxulokijagaz" eukola. Baña ordu beratan Sopataŕ jauna be uŕten zan Begi-Pinto txukuŕagaz. Bitxabal-ziaŕ etoŕzan eta ara non alkaŕ-topo egiŕen daben.

Txakuŕak beti txakuŕ dira, baña ta abuak zabalik alkaŕ jateko eran egozan.

—Kendu egixu txakuŕ ori, Ergamor'ak esan eutson bestiari.

—Zeuk kendu egixu.

—Eztot gura.

—Neuk be ez.

Ergamo eta Sopataŕ jaunak aguŕ andi bana zinkatu eutsen alkaŕi, baña txakuŕak oŕuka asi ziran. Geure jaunak ezin banandu ebezan txakuŕok eta tira-tirakalokijetatik ebiltzazan.

—Txakuŕ bat zarala.

—Neuk txakuŕa esango dautzut.

An jazo zana ikeragaŕija ixan zan. Alkaŕi mustuŕak ausi eutsezan eta biŕaŕtian txakuŕa adizkidetuta ugasabai adi-adi, baŕeka egozan. Ergamor eta Sopataŕ etxeratu ziran odolaz beterik.

ATZEŔGETXIA

Beti-Piŕi jauna atzeŕgetxian zan, bere ogibidia antxe eukolako. Gixon azkaŕa zan, ¿bai?, eta andik etzan igaroten zanarik edo kontrabandorik. Suŕa be zabala eukan eta soñanzkijan sei ale edo botoi. Iñoren adizkide zala, ezin esan, aren aurpegijak iñorekin ezeban txutxu-putxurik-eta. Keledon -Bonbon jauna Frace'ziaŕ etoŕan Euzkadi' ra Eŕetzale gordiña zan, ¿bai?, eta txokoŕ batzuk ekaŕzan. ¿Eun ekaŕzan? Jakingo dozu.

—Zoŕotuan eztaukot ezer, baña sakel oneitan be eztozu ezer idoroko. Alantxe jazo zan. Beti-Piŕi jaunak ezeban ezer aurkiŕu, gora-ta-bera ibili zan-aŕen.

—Zer uste dozube, ba, Neu lako jaun batek eztau zemarik ekaŕten. Neu Keledeon-Bonbon jauna naz. Eta mindurik nua zoŕotua ta sakelak azteŕtu daustazuzalako.

—Egun on Keledon-Bonbon jauna. ¿Non dik zatorz? France-aldian egon zara, ¿ezta? —Bai, andixek natoŕ. Ia, ba, ia zamaŕik edo kontrabandorik dakaŕzun ikusi biaŕ dot.

—Bai, pozik be erakutsiko dautzudaz neure zoŕotua edo maletiña ta sakelak. Zoŕotuan eztaukozu ezer.

Ara, neuk olakorik eneban egingo, gixon andija zaralaba-dakit-eta, baña neure bete -biaŕa auxe dot.

Azketsi egistazu.

—Azketsi zaut.

Aguŕ labana egin eutson Beti-Piŕi jaunak eta ordez Keledon-Bonbon'ak be aguŕ-egin eutson, baña zerbai geyago be bai. Kapela dotoria kendu eutson. France'tik ekaŕi euzan txokoŕai zer jazo yakoen oŕtxe ikusten da. Beti-Piŕi'ri txapelak be egaiz-egin eutson.

IZPAŔ UŔTENENAK

"Daily Herald" izpaŕingijak izpaŕ gaŕantzitsuba dakaŕ. Hitler'taŕak ila onen 31'gko. auteskundietan nagusi ezpa-dira, agintarijai bidalduko dautsoe agiri bat, beriala eurai agintaritza emon dagikientzat. Gudalburubak ta gudaroŕtiak geŕtu daukez oŕetarako.

—Paraguay eta Bolivia-aŕtian guda noiz sortuko dago. Paraguay deŕu dautse buruzagi gustijai. Talketa batzuk jazo dira oraingo.

—Larunbatean etoŕiko da Donostia'ra Zulueta, España'ko eŕkaltseña

—Valparaiso'n galdu da egazkin bat. Ilda idoro dabez amaŕ bidazti ta egazkiñaren zuzendarija.

—Rio Janeiro'ko agintarijak betu dabez matxintzaliak. Ogei egun baño eztabez emongo lateŕiko txindija baŕiz eŕkijetan ontza-aŕtzeko.

—Mandchuria'n gogoŕ asi dira baŕiz China ta Nipon aldekuak. Chao-Yang urija biŕindu dau Chang-Sue-Liang buruzagijak sei egazkiñez.

—Catalunya'ko izpaŕingijak txaŕtzat aŕtzen dabe Radical'en araudi-aldezko bijuŕeria. Lerroux'engan eztala itxaropenik eztabela euki biaŕ dirautse euren aldunai.

—Oviedo'n opoŕketea dagije miatzetan lan-egiten dabenak. Anei langile dira gustiŕan.

—"El fondon" miatzan beste zortzireun langile opoŕketean dagoz.

—Valencia'n batzaŕ bat egingo dabe igalijak eta aliak batzen dabezanak, France'n idoroten dabezan eragozpenakaz ezer ezin dabelako saldu.

—Almeria'ko izpaŕingijen auŕka, subageak jaŕi dabez iraŕkolaetan. Orokerizaliak dira subagak jaŕi dabezanak, euren lagunak opoŕketean diralako.

—Madrid'go izpaŕingijak atzoko eztabaitzaz idazten dabe. Lerroux'en aldez dira geyenak. "El Socialista" baŕiz Azaña'ren aldez.

—Bizkaya'n egiŕeko ixan dira ixontzi bijak, oraingoz eztira iñun egingo. Valencia'ta Bizkaya'ren artian ixan dan eztabaidea oindiño bide barik da.

Gari-ebatia

Udea etoŕi yaku,
eldu da garija
ta beronen margua
da ori-orija.

"Uŕezko oyalak lez
garitzeak dagoz"
—entzun dot gaur goxolugin baten agoz—.

"Igitayak zoŕoŕtu
biaŕ doguz arin
garija ebaŕeko
bijaŕ Solobaŕi'n".

Eskeŕagaz oratu
gari piluari,
eskumiak seŕiaz
ondotik ebagi.

Bost edo sei garijaz
pilotxu bat lotu:
oŕa eginda azauba
gero, luŕeratu.

Azaubak eruaten
dabiltzaz umiak,
¡eskolara ez juteko
a zelako uniak!...

Luŕ ganian egonik
aŕtuko berua,
azaubakin egingo
da mutxurijua.

Oŕelan egin biaŕ
garija legoŕtu,
ta legoŕtu ostian
metetan metatu.

Gosetuten danian
soluan bertan jan
talo ta makalauba,
sagaŕdua edan.

Jan-edan ostian be
atzera lanera,
eta lanean zintzo
goxetik gabera.

"Aurtengo gariŕokaz
pozik nok ni beintzat
ta, alan ixan bedi
beste gustijentzat."

...Garija ebagiŕen
ekin amai-aŕte!
negu eduŕtsun-seme
oi-da uzta-uŕte...

ENDAITZ.

Ecos de Sociedad

VIAJES

Fué a Madrid don Manuel Castellanos.

—A Zaragoza, la distinguida señora doña Antonia Arenzana.

—A Donostia, don Federico de Borda, don Apolinar de San Pedro, don Pedro Berroya Martínez, don Rafael Nabarrete y don Fernando Mendizabal.

—A Gasteiz, don Julio Arrate y don Luis Villabaso, con sus hijos.

—De la misma capital, a Gorliz, la señora de Gabiola.

VERANEO

Fué a Bakio doña María de Aurrekoetxea, viuda de Ganboa.

—A Santo Domingo de la Calzada, la señora viuda de Gisasola, con sus hijos Luchi y Pablo.

NATALICIOS

Ha dado a luz con toda felicidad una hermosa niña la esposa de don Angel B. Uriarte, doña Asunción Belandia y Corcuera.

—Dió a luz un niño la esposa de don Eusebio Solórzano.

—Con toda felicidad ha dado a luz un niño la esposa de nuestro amigo don Silverio Beaskoetxea.

—Dimos ayer cuenta del nacimiento de un hijo de nuestro amigo don Luis de Bitarika; pero sufrimos un error involuntario equivocando el apellido de nuestro amigo por el de Totorika. Queda salvado el error.

—En Gautegiz de Arteaga ha dado a luz una preciosa niña la esposa de nuestro querido amigo Naberan'dar Pelipa, nacida Ozamiz'tar Toribe.

A la recién nacida se le impusieron los nombres euzkéricos Miren Maitena. Actuaron de padrinos don Bonifacio de Ozamiz y doña Julia Bilbao.

Enhorabuena.

PETICION DE MANO

Por los señores de Landa ha sido pedida para su hijo Jesús la mano de la distinguida señorita Consuelo de Labeaga. La boda se celebrará en breve. Enhorabuena.

CUERPO CONSULAR DE BILBAO

Ayer, en el Hotel Carlton, el acreditado Cuerpo Consular de Bilbao celebró el acto de presentación oficial de su nuevo miembro Mr. William E. Chapmann, quien recientemente asumió sus funciones representativas de los Estados Unidos de América en nuestra villa.

El decano, Mr. Rees (cónsul de S. M. británica), dió la bienvenida a Mr. Champmann, ofreciéndole la ayuda y afecto del organismo que preside, siendo subrayadas sus palabras con el aplauso de los asistentes.

Por su parte, el nuevo colega dió las gracias al ilustrísimo señor decano, ofreciendo su consideración a todos los presentes.

En el acto estuvieron representadas por sus cónsules regentes las siguientes naciones: Francia, Estonia, Dinamarca, Portugal, Noruega, República Dominicana, Ecuador, Gran Bretaña, El Salvador, Suecia, Italia, Guatemala, Chile, Venezuela, Bolivia y Bélgica.

HOTEL-RESTAURANT
EUSKALDUNA
SERVICIO A LA CARTA
Bidebarrieta, 12. 2.°. Telf. 12.312.
BILBAO